



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

## **EHUko IKASLE KONTSEILUAK MATRIKULAREN PREZIO PUBLIKOAK MANTENTZEAREN AURKA BOZKATU DU ETA EREDU JUSTUAGO BAT ALDARRIKATU DU**

**Kontseiluaren ustez, prezioak izoztea ez da nahikoa, eta Eusko Jaurlaritzari eta EHUko errektoretza-taldeari prezio publikoen, beken eta ordainketa-epeen sistema benetan berrikusteko eskatu die.**

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

**Gasteiz, 2026ko maiatzaren 7a** – Gaur goizean Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluaren (Eusko Jaurlaritzaren eta euskal unibertsitate publikoaren arteko koordinazio-organoa) bilera egin da. Bertan, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoen prezioak aztertu dira 2026-2027 ikasturterako.

Iñigo Ugedo, EHUko Ikasle Kontseiluko presidentea, unibertsitate publikoko ikasleen ordezkari gisa izan da bileran, eta proposamenaren aurka bozkatu du. Ikasle Kontseiluak positibotzat jotzen du salbuespen eta murrizketa jakin batzuk mantentzea, baina uste du prezioak izoztea ez dela nahikoa ikasleriaren errealitate ekonomikoari erantzuteko.

Kontseiluaren ustez, prezioak ez igotzeak ez du zertan unibertsitate publikora sartzeko eskubidea bermatzen. Egungo sistemak zama ekonomiko handia izaten jarraitzen du gazte eta familia askorentzat, batez ere bizitzaren kostuak ikasteko, unibertsitatean irauteko eta ibilbide akademikoa berdintasun-baldintzetan garatzeko aukera baldintzatzen jarraitzen duen testuinguru batean.

Kontrako botoa, gainera, [Ikasle Kontseiluak bultzatutako inkestaren behin-behineko emaitzak aurkeztu ondoren](#) eman da. Datu horien arabera, ia 10 ikasletik 8k uste du matrikularen prezioa altua edo oso altua dela. Era berean, emaitzek erakusten dute zailtasun ekonomikoak ez direla kontu isolatu bat, baizik eta unibertsitate-bizitza, errendimendu akademikoa eta ikasketen jarraipena zuzenean baldintzatzen dituen faktore bat.

Iñigo Ugedo EHUko Ikasle Kontseiluko presidentearen hitzetan, *“prezioak izozteak zentzuzkoa iruditu dezake paperean, baina ez du sakoneko arazoa konpontzen. Unibertsitate publikoa ezin da garestitu ez izanarekin konformatu: bertan ikasten duten pertsonentzat benetan irisgarria izan behar du”*.

Ikasle Kontseiluak gogorarazi du ikasleriak adierazitako lehentasunak argiak direla: beken sistema orokorra indartzea, ikasketetarako laguntzetara sartzeko baldintza akademikoak malgutzea, matrikularen prezioa berrikustea eta ordainketa-epeak zabaltzea. Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen du hausnarketa



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

sakonago bat irekitzea ikasleriak bere gain hartzen duen finantzaketa-ereduari buruz, bai eta unibertsitate publikoan ikastea ahalbidetzen edo zailtzen duten baldintza materialei buruz ere.

Era berean, Ikasle Kontseiluak berriz ere eskatu du elkarrizketa-mahai bat sortzea Eusko Jaurlaritzaren, EHUko errektoretza-taldearen eta ikasleen ordezkariaren artean, prezio publikoen eta beken sistema justuago, irisgarriago eta ikasleriaren benetako beharretara egokituago baterantz aurrera egiteko. [Eskari hori iaz ere planteatu zen](#), Ikasle Kontseiluak matrikularen prezioak mantentzearen aurka bozkatu zuenean. Momentu hartan errektoreari gogorarazi zion bere hauteskunde-programan matrikula-tasak negoziatzeko konpromisoa hartu zuela, hirugarren eta laugarren deialdikoak barne, bai eta matrikularen ordainketa-epeak malgutzekoa ere.

Ikasle Kontseilutik azpimarratu nahi dugu prezio publikoei eta bekei buruzko eztabaida ezin dela kontu tekniko edo aurrekontu kontu batera mugatu. Sakonean politikoa den auzia da, unibertsitate publikora berdintasun-baldintzetan sartzeko, bertan irauteko eta aurrera egiteko eskubidearekin lotuta dagoena.

**EHUko Ikasle Kontseilua**



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

**Contacto:**

[ikasle.kontseilua@ehu.eus](mailto:ikasle.kontseilua@ehu.eus)

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: [www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua](http://www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua)

[www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua](http://www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua)

P R E N T S A O H A R R A